

Hodeimari

Hodeimari zuen izena sorgin ttipi hark. Zeruan bizi zen, hodeien artean gorderik.

Batzuetan gogoetak egiten zituen :

– Nola bizi ote dira Lurrean jendeak ?

Egun batez erabaki zuen ikusiko zuela Lurreko jendeak nola bizi ziren.

Lurrera egin zuen jauzi handiak Baiornaraino ekarri zuen. Tximinietan, autoen azpian, zuhaitzetan, gure sorgin ttipia nonahi gordetzen zen. Baina nehor ez zuen ikusi.

Behin, bere gordelekitik, elkarrizketa hau entzun zuen, karrikan zebilen jendeen artean :

– Hau da hau eguraldi txarra ! – erran zuen Katixak.

– Bai, zinez ! Hilabete guzian ez dugu eguzkia ikusi – zioen Joanak.

– Ez eguzkia, ez izarrik ! Euria eta haize hotza ; besterik ez dugu !

– Udaberrian sartuak gara baina oraino neguan garelako iduri du.

Baionesak oso kezkatuak zeuden : udaberria zen baina zelaietan eta pentzetan ez zegoen lorarik. Xoriek ez zuten kantatzen eta **ibaiak gaindizka hasi ziren.**

Horiek denak entzunik, Hodeimari jendeen aurpegi tristeei ohartu zen eta bere baitan ari zen :

– Zerbait egin behar dut...

Bere **erratza** hartu zuen eta zerura igan zen.

– Orain badakit zergatik den beti aro txarra – erran zuen Hodeimarik. Hodei beltz handi horiek ez





dute eguzkia pasatzera uzten. Argia eta beroa falta zaizkigu.
Erratza eskuetan harturik, zeruaren garbitzen hasi zen Hodeimari:
35 risti, rasta, risti, rasta... erratz ukaldika. Baiona parean ziren hodei
beltzak, hodei guziak, haizatu zituen itsasora buruz.
Horrelako lana eginik, Hodeimari oso nekatua zen eta ilargira
joan zen pausatzerara.
Baionako jendea, aldiz, alaiki bizi da geroztik...

Elkar argitaletxeko *Zipristin* 2 liburutik egokitua.

ibaiak gaindizka hasi ziren:
ibaietako urak beren
uhobitik atera ziren.

erratza: jatsa.



1 IRAKURGAIA ULERTZEN DUT

- Zergatik hola deitzen zen sorgin ttipi hori ?
- Non bizi zen ? Non gorde zen Baionara etorri zenean ?
- Zergatik Baionako jendea kexu zen ?
- Zer egin zuen eguzkiaren ekarrazteko ?

2 HIZKUNTZA ETA GRAMATIKA

► Horra eguraldiaren irudikatzekeo zenbait ikur. Euskal Herriko mapan ager itzazu eta aroa telebistan bezala aurkez.



► Lerro hauek berridatz itzazu hutsuneak betez. Hori / horiek / dut / ditut hitzak baliatuko dituzu.

